

Genero-politikak EAEko museo eta arte zentroetan

GALDERA-SORTAREN EMAITZEI
BURUZKO TXOSTENA

2018KO ABENDUA



AURKIBIDEA

Aurkezpena.....	3
Fitxa teknikoa.....	4
0. Zentrozen informazio orokorra.....	6
1. Banakako erakusketak.....	10
2. Talde-erakusketak.....	25
3. Jarduerak.....	39
4. Genero-ikuspegiaren gainean jarduteko ildoak.....	55
5. Ondorioak.....	58

Aurkezpena

Jarraian aurkezten dugun txostena “Genero Politikak EAEko Museo eta Arte Zentroetan” proiektuaren parte da, eta analisi bat jasotzen du **EAEko titulartasun publikoko Museo eta Arte Zentroetan 2017. urtean garatutako aldi baterako erakusketetan eta jardueretan emakumeak sortzaile, artista, profesional, prestatzaile eta abar gisa duen presentziari eta parte-hartzeari buruz.**

Informazio kuantitatiboaz gain, kualitatiboa ere jaso da; genero-ikuspegia txertatzeko beren eguneroko jardunean kontuan izaten eta garatzen dituzten irizpideak, lan-ildoak eta abar deskribatzeko eskatu zaie museo eta arte-zentroeiei.

Galdera-sorta bidali zaien museo eta arte-zentro guztiek erantzun duten arren, azpimarratu behar da **guztiek ez dituztela galderak maila berean erantzun, emandako erantzunari eta zehaztasunari**

dagokienez. Horren ondorioz, aldagai batzuk ezin izan dira modu egokian ustiatu, informazio nahikorik ez genuelako. **Kontzeptualki modu bereizian ustiatu dira arte bisualen eremuan lan egiten duten museo eta arte-zentroyen eta beste diziplinetan** (Arkeologia, Antropologia, Natura Zientziak eta lanbideak, besteak beste) **kokatzen diren museo eta zentroyen artean.**

Egia bada ere bigarren talde hori izugarri heterogeneoa dela, egindako bereizketak sostengatzen du eta jarraipena ematen dio lehenago Eusko Jaurlaritzako Kultura Sustatzeko Zuzendaritzak lehenago garatutako lan-ildo bati (Kulturaren Euskal Behatokiak egindako “Emakumeen presentzia ikusizko arteetan eta ikus-entzunezkoetan ” azterlana, 2016. urtekoa), **eta lan-ildo berri bat irekitzen laguntzen du, aurrekoaren zentzu berean, beste diziplinetako museo eta guneeekin.**

Fitxa teknikoa

GALDERA-SORTAREN HELBURUAK

Informazioa biltzea EAEko titulartasun publikoko Museo eta Arte Zentroetan 2017. urtean garatutako aldi baterako erakusketetan eta jardueretan emakumeek (sortzaile eta profesional gisa, besteak beste) izan duten presentzia eta parte hartzea sakonago ezagutzeko.

INKESTAREN EPEA

Hasiera batean 2 hilabeteko erantzun-epea proposatzen da, baina azkenean epea 6 hilabete ingurukoa izan da; hala ere, unibertso osoak erantzun positiboa eman du (erantzun-maila desberdinekin galdera desberdinetarako).

UNIBERTSOA

Hiru lurraldeetan partaidetza publikoa duten zentroekin egin da diagnostikoa, bai arte bisualetakoekin bai beste diziplinetakoekin. Zentro eta museoen lagin horrekin ordezkagarritasuna bilatu da, nahiz eta adierazle guztietan ez eduki informazio nahikorik sektore osorako ondorio estrapolagarriak ateratzeko. 34 zentrok parte hartu dute.

INKESTA MOTA

Word dokumentu auto-betegarria.

GALDERA MOTAK

Galdera irekiak eta itxiak, hautaketa bakarrekoak eta hautaketa anitzekoak.

ANALISI MOTA

Analisi guztiak zenbait aldagairen arabera segmentatuta aurkezten dira: artistaren sexua (emakumeak / gizonak / mistoa), zentro mota (arte bisualak / beste diziplina batzuk), eta erakusketaren izaera (indibiduala / taldekoa), **horretarako informazio nahikoa dagoen kasuetan.**

Egitura

Inkesta egituratzeko, HAKOBA KULTURAtik adostutako analisi-eremuak hartu dira erreferentziatzat, eta, datu orokorrez gain, EAEko museo eta arte-zentroetan garatutako ALDI BATERAKO ERAKUSKETAK eta JARDUERAK hartu ditu oinarritzat.

0. BLOKEA. Hitzaurrea eta inkestaren aurkezpena.

1. BLOKEA. Zentroen edo museoen identifikazio-datuak (izena, posta elektronikoa, telefonoa...).

2. BLOKEA. Zentro eta museoetarako **bisitei buruzko informazioa.**

3. BLOKEA. Aldi baterako erakusketei buruzko informazio zehatza.

Galdera sortak elementu hauek zituen: sormen-espresioa, izaera banakakoa edo taldekoa, artisten sexua eta jatorria, erabilitako aurrekontua, kontratuak, ordainsariak, iraupena, erabilitako leku fisikoa, sustapen-baliabideak eta egindako argitalpenak.

4. BLOKEA. Jarduerei buruzko informazio zehatza. Alderdi hauei buruz eskatu zen informazioa: jarduera mota, izaera banakakoa edo taldekoa, jarduera-emaileen sexua eta jatorria, kontratuak, ordainsariak, iraupena, sustapenerako baliabideak eta horri lotutako argitalpenak.

5. BLOKEA. Eskurapenei eta dohaintzei buruzko informazioa: dohaintza-emaileen eta artisten sexuaren analisia.

6. BLOKEA. Diskurtsoei, kontaketei, ikerketei eta programazio-irizpideei buruzko informazioa. Informazioa biltzen da beren lan-esparruetan genero-ikuspegia txertatzeko museoek dituzten lan-ildoei buruz.



1. INFORMAZIO OROKORRA


- Parte hartu duten museoak eta zentroak
- Bisitariak
- Zentroek eskaintzen dituzten zerbitzuak

1.1. Parte hartzen duten zentroak

Arte bisualetako museoak eta zentroak
Azkuna Zentroa
Bilbao Arte
Bilboko Berreginen Museoa
Montehermoso Kulturunea
Arte Garaikidearen Euskal Zentro - Museoa
Bilboko Arte Eder Museoa Fundazioa
Koldo Mitxelena Kulturunea
Elizbarrutiko Arte Sakratuaren Museoa
Arabako Arte Ederren Museoa
Guggenheim Bilbao Museoa
Rekalde Aretoa
Sala Amarica
San Telmo Museoa
Tabakalera – Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroa

34

Inkestan 34 museo eta arte-zentrok parte hartu dute guztira




Beste diziplinetako museo eta zentroak
Arkeologi Museoa
Arrantzaleen Museoa
Bilboko Euskal Museoa
Bilboko Itsasadarra Itsas Museoa
Cristóbal Balenciaga Museoa
Euskal Herria Museoa
Gordailua
El Pobaleko Burdinola
Igartubeiti Baserri Museoa
La Encartada fabrika – museoa
Arabako Armagintza Museoa
Arabako Arkeologia Museoa
Arabako Natura Zientzien Museoa
Fournier Karta Museoa
Oiasso Museoa
Ondare Aretoa
TOPIC – Nazioarteko Txotxongilo Zentroa
Txakolingunea
Untzi Museoa
Zumalakarregi Museoa

1.2. Bisitariak

2.672.102

bisitari izan zituzten inkestatutako museoek, guztira, 2017. urtean



Bisitarien

%52 emakumeak dira,

%48 gizonak **


Bisitarien kalkulu orokorra, gaiari buruzko datuak eman dituzten 32 museoekin egindakoa.

** Emakumeen eta gizonen arabera ikusteko, bisitarien buruzko informazioa sexuen arabera berezia eman zituzten museoen datuak erabiltzen dira; 23 museo dira, 34tik.

Edonola ere, inkestan parte hartu duten 34 museoetatik 23k (%68) baino ez dute informazio berezia bisitarien buruz. Arte bisualetako artean, portzentajea %57ra jaisten da, eta beste diziplinetako artean %75ra igotzen da.


2.208.418

ARTE BISUALAK



Arte bisualen zentroek kontzentratzen dituzte bisitari gehienak (%83).

Emakumeen pisua, portzentajeetan, pixka bat handiagoa da "beste diziplinetako" guneetarako bisitetan arte bisualetakoetan baino **



463.684

BESTE DIZIPLINA

** Gaiari buruzko datuak eman dituzten museoen gainean egin dira kalkuluak. Arte bisualen kasuan, 14tik 8k eman zuten bisitarien buruzko informazio berezia. Beste diziplinetako artean, 20k eman zuten bisitarien kopuru orokorra, eta 15ek sexuaren arabera ikuspegia.

1.3. Eskaintzen diren zerbitzuak

Erabiltzaileak, zerbitzuaren arabera		Orokorra	♀	♂
Dokumentazioa (*1) Dokumentazioa kategoriaren barruan hainbat zerbitzu sartzen dira: "dokumentazio-zentroa", "artxiboa", "mediateka", "liburutegiko maileguak"...		744.036	%39,7	%60,3
Ikerketa Ikerketaren kategoriaren barruan, besteak beste, "ikertzaileei arreta ematea", "laborategia" eta "praktikak" zerbitzuak sartzen dira.		22.580	-	-
Ekitaldiak		3.312	%68,1	%31,9
Kontsultei erantzutea Kontsultei erantzutea kategorian, besteak beste, arkeologia, etnografia eta artearen inguruko zalantzak argitzea sartzen da.		172	%34,2	%65,8

Ehuneko horizontalak. Sexu ezaguneko erabiltzaile guztiak eta zerbitzu motak aintzat hartuta egindako kalkuluak. Dokumentazioa 11.144 pertsona, ekitaldiak 3.312 pertsona, kontsultei erantzutea 117 pertsona.

› Dokumentazioa, gehien erabiliena

Oro har parte hartzen duten zentroek – datuek ez dute aukerarik ematen informazioa modu bereizian ustiatzeko– zerbitzu mota desberdinak eskaintzen dituzte, berariazko kapitulu batean sartzen diren erakusketez eta jardueraz gainera. **Erabiltzaile gehien dituztenak dokumentaziokoak dira.**

Sexuen arabera, badirudi **gizonek gehiago erabiltzen dituztela dokumentazioko eta kontsultei erantzuteko zerbitzuak emakumeek baino**; emakumeak, berriz, gehiago joaten dira zentroek antolatzen dituzten ekitaldietara.






2. BANAKAKO ERAKUSKETAK

- Erakusketa-kopurua.
- Espresio artistikoa.
- Artisten adina.
- Artisten jatorri kulturala.
- Artisten kontratu motak.
- Artisten ordainsariak.
- Erakusketen iraupena.
- Erakusketetarako lekua.
- Erakusketak sustatzeko baliabideak.
- Erakusketei lotutako argitalpenak.

2.1. Erakusketa-kopurua

› Museo eta arte-zentroetan, guztira, **75 banakako erakusketa egin dira 2017. urtean**; 60 arte bisualak (%80) eta 15 beste diziplinetakoak (%20).



Sexua identifikatua duten jardueren guztizkoaren gainean (72) kalkulatu dira ehunekoak

Arte bisualak	Orokorra	♀	♂
Kop.	60	20	38
% horiz.	-	%34,5	%65,5

Sexua identifikatua duten erakusketen guztizkoaren gainean (58) kalkulatu dira ehunekoak

Beste diziplinak	Orokorra	♀	♂
Kop.	15	5	9
% horiz.	-	%35,7	%64,3

Sexua identifikatua duten erakusketen guztizkoaren gainean (14) kalkulatu dira ehunekoak

› Banakako erakusketen **%65 gizonezkoenak izan dira, eta %35 emakumezkoenak.**




Banaketa hori parekoa da arte bisualen zentroetan eta beste diziplinetakoetan, hurrengo tauletan ikusten den bezala. 3 erakusketaren kasuan ez dugu informazio bereizirik.

2.2. Erakusketen espresio artistikoa

Espresio artistiko mota	Orokorra	♀	♂
Margolaritza	%16,0	%8,0	%21,3
Argazkigintza	%14,7	-	%23,4
Instalazioa	%12,0	%20,0	%8,5
Eskultura	%8,0	%16,0	%4,3
Bideogintza	%6,7	%8,0	%6,4
Marrazketa	%5,3	%4,0	%6,4
Arkeologia	%2,7	-	%4,3
Historia	%2,7	%4,0	%2,1
Antropologia	%1,3	-	%2,1
Moda	%1,3	-	%2,1
Besterik	%42,7	%48,0	%36,1

Kalkulua banakako erakusketa guztien gainean egin da: 75 kopuru orokorrerako, 25 emakumeen kasuan, 47 gizonen kasuan. Hautaketa anitzeko aukera.

Ez da datu bereizirik ematen zentro motaren arabera (arte bisualak / beste diziplinak), sexuen arabera informazioa nahikoa ez delako.




› Pintura, argazki eta instalazio ugari

Margolaritza (%16), argazkigintza (%15) eta instalazioak (%12) dira banakako erakusketetan presentzia handiena duten espresio artistikoak.

› Alde handiak daude emakume eta gizonen artean.

Pintura eta argazkigintza gizonen erakusketetan nabarmentzen dira, eta **instalazioak eta eskultura, berriz, emakumeen** erakusketetan, +12 puntuko aldearekin kasu bietan.



2.3. Artisten adina

Adina	Orokorra	♀	♂
<25	%1,7	%4,8	-
26-35	%13,3	%19,0	%10,3
36-45	%20,0	%28,6	%15,4
46-55	%16,7	%14,3	%17,9
56-65	%25,0	%19,0	%28,2
66 edo +	%23,3	%14,3	%28,2

Ehuneko bertikalak. Adinaren datu ezaguna duten 60 artisten guztizkoaren gainean egin da kalkulu orokorra. Emakumeen kasuan, 21en gainean izan da, eta gizonezkoen kasuan 39ren gainean.


» 56 urtetik 65era bitartekoa

Analizatutako artisten artean, adin-tarte ohikoena 56 urtetik 65era bitartekoa da. Horrez gain, profila apur bat zaharragoa da: %48ek 56 urte edo gehiago ditu.

» Emakumeen profila gazteagoa da gizonena baino:

horietatik, %24 daude 35 urtetik behera; gizonen kasuan, berriz, %10 baino ez dira.

Gizonen %56 daude 56 urtetik gora, eta emakumeen %33 soilik.



2.3. Artisten adina

Arte bisualak	Orokorra	♀	♂
<25	%1,9	%5,9	-
26-35	%13,5	%23,5	%8,6
36-45	%19,2	%29,4	%14,3
46-55	%15,4	%5,9	%20,0
56-65	%25,0	%17,6	%28,6
66 edo +	%25,0	%17,6	%28,6

Ehuneko bertikalak. Kalkulu orokorra arte bisualetako zentroetan adin ezaguna duten 52 artisten guztizko kopuruaren gainean egin da; 35 gizonezko eta 17 emakumezko.

Beste diziplinak	Orokorra	♀	♂
<25	-	-	-
26-35	%12,5	-	%25,0
36-45	%25,0	%25,0	%25,0
46-55	%25,0	%50,0	-
56-65	%25,0	%25,0	%25,0
66 edo +	%12,5	-	%25,0


Ehuneko bertikalak. Kalkulu orokorra beste diziplinetako zentroetan adin ezaguna duten 8 artisten guztizko kopuruaren gainean egin da; 4 gizonezko eta 4 emakumezko.

» Emakume gazteagoak arte bisualen zentroetan

Emakumeek nabarmenki profil gazteagoa dute gizonek baino arte bisualen zentroetan izandako erakusketetan: 35 urtetik beherakoak %29 dira emakumeen kasuan, eta %9 baino ez gizonen kasuan, eta emakumeen %35 dira 56 urtetik gorakoak, gizonen kasuan, berriz, %57.

Beste diziplinetako zentroetan artisten adinaren profila ez da orokorraren eta arte bisualetakoen berdina. 35 urtetik beherako gizonen badute nolabaiteko presentzia (%25), emakumeek, berriz, ez.

2.4. Artisten jatorri kulturala



› Gehiengoa, Euskal Herrikoa

Artisten jatorri kulturalari dagokionez, bertakoa nabarmentzen da (Euskal Herria %47), emakumeen kasuan bereziki; gizonak baino 11 puntu gehiago. Gizonen artean, berriz, atzerritik datozenak gehiago dira (%30) emakumeen artean baino (%19).

2.4. Artisten jatorri kulturala

Arte bisualak	Orokorra	♀	♂
Euskal Herria	%42,4	%52,4	%37,8
España	%30,3	%28,6	%31,1
Europa (*1)	%16,7	%9,5	%20,0
Amerika (*2)	%10,6	%9,5	%11,1
Asia	-	-	-
Ozeania	-	-	-

Beste diziplinak	Orokorra	♀	♂
Euskal Herria	%66,7	%60,0	%66,7
España	%13,3	%20,0	%11,1
Europa (*1)	%6,7	-	%11,1
Amerika	-	-	-
Asia (*3)	%6,7	%20,0	-
Ozeania (*4)	%6,7	-	%11,1

Ehuneko bertikalak. Jatorriaren datua ezaguna duten artisten guztizko kopuruaren gainean egin da kalkulua: Arte bisualak: orokorra 66, 21 emakume eta 45 gizon. "Beste diziplinetako" zentroak: orokorra 15, 5 emakume eta 9 gizon.

» Bertakoen proportzioak handiagoa izaten jarraitzen du, bai arte bisualetako zein beste diziplinetako zentrozen kasuetan, batez ere azkeneko hauetan.

Erakusketa indibidualetako artistak **10 herrialdetatik datoz:**

(*1) Detektatu diren Europako herrialdeak: Alemania, Frantzia, Grezia eta Erresuma Batua.

(*2) Detektatu diren Amerikako herrialdeak: Argentina, Ekuador, Kuba eta EEBB.

(*3) Detektatu diren Asiako herrialdeak: Iran.

(*4) Detektatu diren Ozeaniako herrialdeak: Australia.

2.5. Erakusketei lotutako aurrekontua

Erakusketaren aurrekontua	Orokorra	♀	♂
20.000 eurotik behera	%59,5	%64,3	%53,9
20.001 eta 50.000 artean	%16,7	%28,6	%11,5
50.001 eta 80.000 artean	%4,8	-	%7,7
80.001 baino gehiago	%19,0	%7,1	%26,9

Aurrekontuari buruzko datua duten erakusketen guztizko kopuruaren gainean egin da (orokorra 42, emakumeak 14 eta gizonak 26).

Ez da datu bereizirik ematen zentro motaren arabera (arte bisualak / beste diziplinak), dagoen informazio bereizia nahikoa ez delako.


› 20.000 eurotik behera



Erakusketa individualen batez besteko aurrekontua 20 mila eurotik behera dago (%60).

› Emakumeen aurrekontua, txikiagoa

Emakumeen erakusketei lotutako aurrekontua txikiagoa da gizonen erakusketena baino: %7 baino ez dago 50 mila eurotik gora; emakumeen kasuan, berriz, portzentaje hori %35koa da.



2.6. Artisten kontratu motak

Kontratu-mota	Orokorra	♀	♂
Artelanak ekoitzi eta erakusteko kontratu pribatua	%42,9	%75,0	%30,0
Lankidetzak akordioa	%7,1	-	%10,0
Hitzarmena	%7,1	-	%10,0
Obra-kontratua	%7,1	-	%10,0
Zerbitzuak emateko kontratu pribatua	%7,1	-	%10,0
Beste batzuk (*1)	%28,6	%25,0	%30,0

Kontratuaren datua ezaguna duten artisten guztizko kopuruaren gainean egin da kalkulua: orokorra 14, 4 emakume eta 10 gizon.

Ez da datu bereizirik ematen zentro motaren arabera (arte bisualak / beste diziplinak), dagoen informazio bereizia nahikoa ez delako.



› **Erakusketarien kontratuei buruz informazio eskasa dago**, 81tik, 14k baino ez dute datu hori (%17).

› **Emakume erakusketarien kontratu gehienak artelanen ekoizpen eta erakusketari buruzkoak dira** (%75); gizonen kasuan, berriz, aniztasun handiagoa dago kontratu motei dagokienez.

2.7. Artisten ordainsariak

Ordainsariak	Orokorra	♀	♂
Zenbatutako ordainsarien batura	80.264 €	37.500 €	42.764 €
Ordainsarien batez bestekoa, artista bakoitzeko	3.822,1 €	3.409,1 €	4.276,4 €

Ordainsarien zenbatekoa ezaguna duten artisten guztizkoaren gainean egin dira kalkuluak. orokorra 21 (11 emakume eta 10 gizon).

Ez da datu bereizirik ematen zentro motaren arabera (arte bisualak / beste diziplinak), dagoen informazio berezia nahikoa ez delako.



› 3.822 € batez besteko

Analizatutako artista-taldearen batez besteko ordainsariak **3.822 €-koak dira**.

› Emakumeek, %20 gutxiago

Emakumeen batez besteko ordainsariak %20 txikiagoak dira gizonenak baino.



2.8. Erakusketen iraupena


Iraupena	Orokorra	♀	♂
Iraupena guztira, egunetan	6.807	1.959	4.426
Egunak erakusketako	95,9	85,2	98,4

Kalkulua erakusketen guztizko kopuruaren gainean egin da, kasu bakoitzeko datuarekin: orokorra 71 (23 emakume eta 45 gizon).

Arte bisualak	Orokorra	♀	♂
Iraupena guztira, egunetan	5.185	1.620	3.204
Egunak erakusketako	89,4	81,0	89,0

Kalkulua erakusketen guztizko kopuruaren gainean egin da, kasu bakoitzeko datuarekin. Arte bisualak: orokorra 58, 20 emakume eta 36 gizon. "Beste diziplinetako" zentroak: orokorra 13, 3 emakume eta 9 gizon.

Beste diziplinak	Orokorra	♀	♂
Iraupena guztira, egunetan	1.622	339	1.222
Egunak erakusketako	124,8	113,0	135,8



eguneko iraupena izan zuten banakako erakusketek, guztira, 2017. urtean.

» Beste diziplinetako zentroetako erakusketak, luzeagoak dira



"Beste diziplinetako" zentroetako erakusketak **%40 luzeagoak dira**, batez beste, arte bisualetakoetan egindakoak baino.

» Emakumeek egindako erakusketak gutxiago irauten dute, batez ere beste diziplinetan



egun gutxiago irauten dute batez beste (-%13). emakumeen erakusketek gizonenak baino

Emakumeek eta gizonen egindako erakusketen iraupenen arteko aldeak nabarmenagoak dira "beste diziplinetako" zentroetan (gizonenak %20 luzeagoak) arte bisualetakoetan baino (%10).

2.9. Erakusketetarako erabilitako lekua

m ² -ak guztira	Orokorra	♀	♂
Lekua guztira	26.845	5.901	18.374
Batez besteko lekua erakusketako	547,9	368,8	592,7

Lekuaren datua baduten erakusketen guztizkoaren gainean egin da kalkulua: orokorra 49, 16 emakume eta 31 gizon.



lekua izan zuten erakusketa **indibidualek**, guztira, 2017. urtean, 548 metro koadro, batez beste erakusketako.


Arte bisualak	Orokorra	♀	♂
Lekua guztira	25.670	5.371	17.799
Batez besteko lekua erakusketako	626,1	447,6	635,7

Lekuaren datua baduten erakusketen guztizkoaren gainean egin da kalkulu orokorra: Arte bisualak: orokorra 41 (12 emakume eta 28 gizon). Beste diziplinak: orokorra 8 (4 emakume eta 3 gizon).

Beste diziplinak	Orokorra	♀	♂
Lekua guztira	1.175	530	575
Batez besteko lekua erakusketako	146,9	132,5	191,7

› Leku handiagoa gizonentzako

Erakusketa bakoitzerako utzitako batez besteko lekua **nabarmenki handiagoa da artista gizona denean** emakumea denean baino (+%61, 224 m²).



Sexuen araberako aldeak antzeko proportzioetan agertzen dira, bai arte bisualetako zentroetan zein beste diziplinetakoetan (batez besteko **%30eko gutxiago emakumeen kasuetan**).

2.10. Erakusketak sustatzeko baliabideak

Baliabide mota	Orokorra	♀	♂
Web-orria eta sare sozialak, buletina...	%69,3	%72,0	%70,2
Prensa-oharrak, prentsaurrekoak, elkarrizketak	%57,3	%60,0	%57,4
Liburuxkak, orriak, txartelak, kriptikoak	%18,7	%20,0	%17,0
Euskarri grafikoak (banderatxoak, markesinak...).	%13,3	%4,0	%17,0
Besteak	%14,7	%12,0	%12,8

Kalkulu orokorra erakusketa indibidualen guztizko kopuruaren gainean egin da (orokorra 75, emakumeak 25 eta gizonak 47). Hautaketa anitzerako aukera.

Ez da datu bereizirik ematen zentro motaren arabera (arte bisualak / beste diziplinak), dagoen informazio berezia nahikoa ez delako.



» **Erakusketa sustatzeko erabilitako baliabideen artean, onlinekoak dira ohikoenak;** erakusketen %69an erabili dira. Prensa-oharrak eta prentsaurrekoak ere asko erabili dira; erakusketa indibidualen %57an, hain zuzen ere.

» **Ez da alde esanguratsurik antzematen emakumeen eta gizonen erakusketetan erabilitako baliabideen artean,** alde txiki batzuk baino, hala nola euskarri grafikoetan (13 puntu gehiago gizonenetan).

2.10. Erakusketak sustatzeko baliabideak

Arte bisualak	Orokorra	♀	♂
Web-orria eta sare sozialak, buletina...	%66,7	%70,0	%65,8
Prentsa-oharrak, prentsaurrekoak, elkarrizketak	%56,7	%60,0	%55,3
Liburuxkak, orriak, txartelak, kriptikoak	%20,0	%25,0	%18,4
Euskarri grafikoak (banderatxoak, markesinak...).	%15,0	%5,0	%18,4
Besteak	%6,7	%5,0	%5,3


Arte bisualetako zentroetan egindako erakusketa indibidualen gutzizkoaren gainean egin da kalkulu orokorra: orokorra 60 (20 emakume eta 38 gizon). Hautaketa anitzerako aukera.

Beste diziplinak	Orokorra	♀	♂
Web-orria eta sare sozialak, buletina...	%80,0	%80,0	%88,9
Prentsa-oharrak, prentsaurrekoak, elkarrizketak	%60,0	%60,0	%66,7
Liburuxkak, orriak, txartelak, kriptikoak	%13,3	-	%11,1
Euskarri grafikoak (banderatxoak, markesinak...).	%6,7	-	%11,1
Besteak	%46,7	%40,0	%44,4

Beste diziplinetako zentroetan egindako erakusketa indibidualen gutzizkoaren gainean egin da kalkulu orokorra: orokorra 15 (5 emakume eta 9 gizon). Hautaketa anitzerako aukera.

› Emakumeen aldi baterako erakusketek sustapen-baliabide gehiago dituzte

- web-orrietan eta sare sozietan (+4 puntu)
- prentsa-oharretan eta prentsaurrekoetan (+5 puntu)
- eta liburuxketan (+7 puntu).



› Beste diziplinetako zentrozen kasuan, gizonen erakusketek baliabide gehiago dituzte sustapenerako, kategoria guztietan.

2.11. Sustapenerako baliabide ekonomikoak

Ez dago informazio nahikorik analisia egiteko (9 kasu informazioarekin)

2.12. Erakusketei lotutako argitalpenak

Argitalpen-mota	Orokorra	♀	♂
Argitalpenen batekin	%48,0	%48,0	%48,9
Erakusketa-katalogoa	%25,3	%20,0	%29,8
Liburuxka	%5,3	%4,0	%4,3
Aretoko orria	%4,0	%8,0	%2,1
Erakusketa-gida eta app	%1,3	-	%2,1
Beste batzuk	%10,7	%16,0	%10,6

Banakako erakusketa guztien gainean egin dira kalkuluak: guztira 75, 25 emakumezkoenak, 47 gizonezkoenak,

Ez da datu bereizirik ematen zentro motaren arabera (arte bisualak / beste diziplinak), dagoen informazio bereizia nahikoa ez delako.




» **Banakako erakusketen %48an argitalpenen bat egin da, eta %52an ez.**

Erakusketa-katalogoak dira argitalpen ohikoena (banakako 4 erakusketatik 1ean), gainerako motak, berriz, %5aren parekoak dira.

» **Lotutako argitalpen bat duten erakusketen ratioa antzekoa da bi sexuentzat.**

Ez da desberdintasun esanguratsurik aurkitzen; katalogo gehiago daude gizonen erakusketetan (+10 puntu), eta aretoko orri gehiago eta bestelako argitalpen gehiago emakumeenetan (+ 6 eta 5 puntu, hurrenez hurren).



Oharra: kapitulu honetako emaitzak interpretatzeko, kontuan izan behar da gizonen eta emakumeen talde-erakusketen kopurua oso txikia dela (5 emakumeenak eta 10 gizonenak).

3. TALDE-ERAKUSKETAK

- Erakusketa-kopurua.
- Espresio artistiko mota.
- Emaileen sexua.
- Artisten adina.
- Artisten jatorri kulturala.
- Erakusketei lotutako aurrekontua.
- Artisten kontratu mota.
- Artisten ordainsariak.
- Erakusketen iraupena.
- Erakusketetarako lekua.
- Erakusketak sustatzeko baliabideak.
- Erakusketei lotutako argitalpenak.

3.1. Erakusketa-kopurua

Erakusketak	Orokorra	Mistoak	Soilik EMAKUMEENAK diren erakusketak	Soilik GIZONENAK diren erakusketak
Kop.	65	29	5	10
% horiz.	-	%65,9	%11,4	%22,7

Sexuaren arabera bereizitako erakusketen guztizkoaren gainean (44) kalkulatu dira ehunekoak

» **2017. urtean izandako 65 talde-erakusketi buruzko informazioa jaso da.**

Talde-erakusketen %66 mistoak dira (gutxienez emakume batek eta gizon batek parte hartzen dute). %23an gizonek parte hartzen dute soilik, eta %11n emakumeek bakarrik.

Informazio bereizirik ez duten talde-erakusketa asko daude (21).

Arte bisualak	Orokorra	Mistoak	♀	♂
Kop.	36	22	3	6
% horiz.	-	%71,0	%9,7	%19,3

Informazio bereizia duten erakusketen guztizkoaren gainean (31) kalkulatu dira ehunekoak

» **Gizonek bi aldiz presentzia gehiago dute emakumeek baino talde-erakusketetan,**


bai arte bisualetako zentroetan (%19 eta %10, hurrenez hurren) bai beste diziplinetakoetan (%31 eta %15).

Beste diziplinak	Orokorra	Mistoak	♀	♂
Kop.	29	7	2	4
% horiz.	-	%53,8	%15,4	%30,8

Informazio bereizia duten jardueren guztizkoaren gainean (13) kalkulatu dira ehunekoak

3.2. Erakusketa mistoetako artisten sexua

Orrialde honetan analisi espezifiko bat egiten da erakusketa mistoetan bi sexuetako artistek duten protagonismoari buruz (gutxienez gizon bat eta emakume bat).



› **Gizonek protagonismo handiagoa dute erakusketa mistoetan (sexu bakoitzeko pertsona bat, gutxienez).** Analizatutako pertsonen %74 gizonak dira, eta %26 emakumeak

Zentro-motaren araberako ikuspegiak agerian uzten du **sexuen arteko desoreka bi kategorietara zabaltzen dela, baina handiagoa dela arte bisualetako zentroetan (emakumeak %23) beste diziplinetakoetan baino (emakumeak %35).**

Erakusketa mistoetako artisten kopurua eta ehunekoa sexuaren arabera

Emakume-kopurua eta %	126	%26,3
Gizon-kopurua eta %	354	%73,7

Ehuneko bertikalak. Informazio bereizia jaso duten talde-erakusketa mistoetako artisten guztizkoaren gainean egin dira kalkuluak (480).

ARTE BISUALAK

Erakusketa mistoetako artisten kopurua eta ehunekoa sexuaren arabera

Emakume-kopurua eta %	85	%23,5
Gizon-kopurua eta %	277	%76,5

Ehuneko bertikalak. Arte bisualetako zentroetan sexua identifikatuta duten talde-erakusketa mistoetako artisten guztizkoaren gainean egin dira kalkuluak (362).

BESTE DIZIPLINAK


Erakusketa mistoetako artisten kopurua eta ehunekoa sexuaren arabera

Emakume-kopurua eta %	41	%34,7
Gizon-kopurua eta %	77	%65,3

Ehuneko bertikalak. Beste diziplinetako zentroetan sexua identifikatuta duten talde-erakusketa mistoetako artisten guztizkoaren gainean egin dira kalkuluak (118).

3.3. Erakusketen espresio artistikoa

Espresio artistiko mota	Orokorra	Mistoak	♀	♂
Argazkigintza	%29,2	%34,5	%20,0	%30,0
Margolaritza	%27,7	%31,0	%20,0	%50,0
Bideogintza	%21,5	%34,5	%20,0	%10,0
Instalazioa	%13,8	%24,1	%20,0	%10,0
Eskultura	%10,8	%13,8	%20,0	%10,0
Historia	%7,7	%6,9	%20,0	%10,0
Moda	%6,2	%3,4	-	%10,0
Marrazketa	%4,6	%3,4	-	%10,0
Beste batzuk	%61,5	%65,5	%60,0	%70,0



» **Talde-erakusketetan presentzia handiena duten espresio artistikoak argazkigintza eta pintura dira, %30aren inguruko portzentajeekin.**

“Besteak” kategoriaren garrantziak agerian uzten du **ohikoa dela diziplina artistiko mota bat baino gehiago egotea erakusketa berean.**

» **Sexuen arabera ez dago alde handirik, “pintura” kategorian izan ezik, non gizonen presentzia askoz handiagoa baita emakumeena baino.**

Kalkuluak talde-erakusketa guztien gainean egin dira: 65 orokorrak, 29 mistoak, 10 gizonenak, 5 emakumeenak.

Hautaketa anitza egiteko aukera dago motetan.

Ez da datu bereizirik ematen zentro motaren arabera (arte bisualak / beste diziplinak), dagoen informazio bereizia nahikoa ez delako.

3.4. Artisten adina

Adina	Orokorra	♀	♂
<25	%9,0	%13,3	%6,2
26-35	%15,2	%22,4	%10,3
36-45	%27,5	%28,6	%26,7
46-55	%16,4	%19,4	%14,4
56-65	%13,9	%9,2	%17,1
66 edo +	%18,0	%7,1	%25,3

Ehuneko bertikalak. Adina identifikatua duten artista guztien gainean egin da kalkulua (244 guztira, 98 emakume eta 146 gizon).

› 36 urtetik 45era. Emakumeak gazteagoak

Talde-erakusketetako artista gehienak 36 urtetik 45era arteko tartean daude. **Laurdenak tarte horretan kokatzen dira.**

Sexuari erreparatuz, **emakumeen profila gazteagoa da gizonena baino: Emakume artisten %36 dira 35 urtetik beherakoa; gizonen artean, berriz, %17 baino ez.** Kontrakoa gertatzen da **tarte zaharrenen artean, gizonen portzentajeak nabarmenki handiagoak baitira.**

ARTE BISUALETAKO zentroetan kopuru orokorreko alde berberak aurkitzen dira.

Arte bisualak	Orokorra	♀	♂	Beste diziplinak	Orokorra	♀	♂
<25	%10,0	%14,6	%6,9	<25	-	-	-
26-35	%15,5	%24,7	%9,2	26-35	%12,0	-	%18,8
36-45	%25,6	%30,3	%22,3	36-45	%44,0	%11,1	%62,5
46-55	%15,1	%15,7	%14,6	46-55	%28,0	%55,6	%12,3
56-65	%13,7	%6,8	%18,5	56-65	%16,0	%33,3	%6,3
66 edo +	%20,1	%7,9	%28,5	66 edo +	-	-	-

Ehuneko bertikalak. "Artes bisualetarako" kalkulua adin ezaguneko artisten gainean egin da (219 guztira, 89 emakume eta 130 gizon), eta "beste diziplinetako" zentroetarako (25 guztira, 16 gizon eta 9 emakume).

› Emakumeek profil gazteagoa dute gizonek bainoa


(gizonen %47k ditu 56 urte edo gehiago, eta emakumeen %15ek baino ez).

"BESTE DIZIPLINETAKO" zentroen kasuan kontrakoa gertatzen da:

› **Emakumeak zaharragoak dira gizonak baino,** eta %89k 46 urte baino gehiago ditu.

"Beste diziplinetako" artista gehienak adin ertainekoak dira (%72k dute 36 eta 55 urte bitarte), eta ez dago 25 urtetik beherako eta 66tik gorako kasurik.

3.5. Artisten jatorri kulturala



» Euskal Herria, Espainia eta Europa, jatorri printzipalak

Artisten jatorri kulturala hiru lurralde desberdinen artean bereizten da: **Euskal Herria, Espainia eta Europa, kasuen %20 eta 30aren artean kasu bakoitzean.** Gainerakoa Amerika, Asia, Afrika eta Ozeaniaren artean banatzen da, eta haien artean Amerika nabarmentzen da (%16).

» Emakumeen profila bertakoagoa da gizonena baino

(+25 puntu Euskal Herrian); **gizonena, berriaz, gehiago dator Estatutik** (+15 puntu) eta Europatik (+14 puntu).

3.5. Artisten jatorri kulturala

Arte bisualak	Orokorra	♀	♂
Euskal Herria	%20,9	%34,0	%16,9
España	%31,0	%20,4	%34,3
Europa (*1)	%25,9	%15,5	%28,8
Amerika (*2)	%15,3	%14,6	%15,7
Asia (*3)	%5,1	%12,6	%2,9
Afrika (*4)	%1,8	%2,9	%1,4

Beste diziplinak	Orokorra	♀	♂
Euskal Herria	%49,5	%75,0	%34,0
España	%19,8	%12,5	%24,5
Amerika (*2)	%18,8	%9,4	%28,3
Europa (*1)	%9,9	%3,1	%9,4
Asia (*3)	%1,0	-	%1,9
Ozeania (*5)	%1,0	-	%1,9

Ehuneko bertikalak. Jatorriaren datua duten artisten gainean egin da kalkulua. Arte bisualak: orokorra 451, 344 gizon, 103 emakume. "Beste diziplinak": orokorra 101, 53 gizon, 32 emakume.

› Arte bisualetako zentroetan, jatorri anitzagoa

Oro har, **arte bisualetako zentroetan artistek jatorri anitzagoa dute beste diziplinetakoetan baino**, azken horietan %50 Euskal Herritik baitator.

› Bertako emakume artistak gehiago nabarmentzen dira "beste diziplinetako" zentroetan:

emakumeen %75 dira Euskal Herrikoak, baina gizonen kasuan %34 bakarrik.

› Bakarkako erakusketetako artistak 41 herrialdetatik datoz:

(*1) Países de Europa detectados: Alemania, Austria, Bélgica, Bielorrusia, Croacia, Dinamarca, Francia, Irlanda, Italia, Países Bajos, Polonia, Portugal, Reino Unido, Suiza.

(*2) Países de Amerika detectados: Argentina, Brasil, Canadá, Chile, Colombia, Cuba, Ecuador, Estados Unidos, Guatemala, México, Perú, Venezuela.

(*3) Países de Asia detectados: Afganistán, Azerbaijan, China, Emiratos Árabes Unidos, Irán, Israel, Japón, Líbano, Palestina, Rusia.

(*4) Países de Afrika detectados: Libia, Marruecos, Nigeria, Sudáfrica.

(*5) Países de Ozeania detectados: Australia.

3.6. Erakusketei lotutako aurrekontua

Erakusketaren aurrekontua	Orokorra	Mistoak	♀	♂
20.000tik behera	%71,4	%76,5	%75,0	%42,9
20.001 eta 50.000 artean	%2,9	-	-	-
50.001 eta 80.000 artean	%5,7	%5,9	-	%14,3
80.001 baino gehiago	%20,0	%17,6	%25,0	%42,9

Ehuneko bertikalak. Aurrekontuari buruzko informazioa duten erakusketen gainean egin da kalkulua (35 orokor, 17 misto, 7 gizonenak eta 4 emakumeenak).

Ez da datu bereizirik ematen zentro motaren arabera (arte bisualak / beste diziplinak), dagoen informazio bereizia nahikoa ez delako.



› **Erakusketa gehienek 20 mila eurotik beherako aurrekontu.**

Erakusketa gehienek **20 mila eurotik beherako aurrekontu lotua dute (%71)**. Batez beste, erakusketa mistoak dira aurrekontu handiena esleituta daukatenak.

› **Emakumeen talde-erakusketen kasuan, esleitutako aurrekontua gizonena baino txikiagoa izan ohi da.**



3.7. Jarduera-emaileen kontratu motak

Kontratu mota	Orokorra	♀	♂
Lankidetzak-akordioa	%63,6	%75,0	%72,7
Artelanak ekoitzi eta erakusteko kontratu pribatua	%12,1	%20,8	%9,1
Hitzarmena	%10,6	-	-
Beste batzuk (*1)	%13,6	%4,2	%18,2

Ehuneko bertikalak. Kontratu motari buruzko informazioa duten artista guztien gainean egin da kalkulua (66 orokorrean, 24 emakume eta 33 gizon).

Ez da datu bereizirik ematen zentro motaren arabera (arte bisualak / beste diziplinak), dagoen informazio bereizia nahikoa ez delako.



» **Lankidetzak-akordioak dira kontratu-mota ohikoena talde-erakusketetan (%64)**, artelanak ekoitzi eta erakusteko kontratu pribatuak eta hitzarmenak, berriz, askoz gutxiago dira.

» **Artelanak ekoitzi eta erakusteko kontratu pribatuek pisu handiagoa dute emakumeen artean gizonen artean baino (+ 11 puntu).**

Gizonen kasuan, "besteak" kategoria nabarmentzen da. (*1)
"Besteak" kategorian sartzen dira enpresekiko kontratuak, erakundeen arteko lankidetzak, akordioak, lehiaketak...


3.8. Artisten ordainsariak

- › **Analizatutako artista-taldearen batez besteko ordainsariak 574 €-koak dira.**
- › **Emakumeen ordainsariak, batez beste, %13 txikiagoak dira gizonenak baino.**

Ordainsariak	Orokorra	♀	♂
Zenbatutako ordainsarien batura	18.360 €	13.260 €	5.100 €
Zenbatutako ordainsarien batura	573,8 €	552,5 €	637,5 €

Ordainsarien zenbatekoa ezaguna duten artisten guztizkoaren gainean egin dira kalkuluak. orokorra 32 (24 emakume eta 8 gizon).

Ez da datu bereizirik ematen zentro motaren arabera (arte bisualak / beste diziplinak), dagoen informazio bereizia nahikoa ez delako.



3.9. Erakusketen iraupena

	Orokorra	Mistoak	♀	♂
Iraupena guztira, egunetan	5.534	2.918	372	828
Egunak erakusketako	95,4	112,3	74,4	103,5

Iraupenaren datua duten talde-erakusketen guztizkoaren gainean egin dira kalkuluak (58). Sexuaren arabera, datuak daude 28 erakusketa mistori, gizonen 8ri eta emakumeen 5 erakusketari buruz.

Arte bisualak	Orokorra	Mistoak	♀	♂
Iraupena guztira, egunetan	2.940	1.803	145	576
Egunak erakusketako	84,0	85,9	48,3	96,0


Beste diziplinak	Orokorra	Mistoak	♀	♂
Iraupena guztira, egunetan	2.594	1.115	227	256
Egunak erakusketako	112,8	159,3	113,5	128,0

Datua duen zentro mota bakoitzeko talde-erakusketa guztien gainean egin dira kalkuluak, 35 arte bisualetako zentroen kasuan (21 misto, 6 gizonenak, 3 emakumeenak), eta 23 (7 misto, 2 gizonenak eta 2 emakumeenak) "beste diziplinak" kategoriakoetan.

» **95 egun batez beste. Gizonezkoek egindako erakusketak luzeagoak.**

Talde-erakusketek **95 egun** irauten dute, batez beste.

Iraupena luzeagoa da erakusketa mistoen kasuan, baita gizonek soilik osatutako taldekakoetan ere. Zehazkiago, **gizonek landutako talde-erakusketek 29 egun gehiago irauten dute, batez beste, emakumeek egindakoek baino (+%39).**



» **Arte bisualetako zentroetan gizonek egindako erakusketek bi aldiz gehiago iraun dute emakumeek egindakoek baino (+%99).**

